

**GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKI-
PROPOSAMENA, EUSKADIKO
MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN
PLANAREN OINARRIZKO DOKUMENTUA
JAKINARAZTEKO.****ORDEN DE LA CONSEJERA DE
MOVILIDAD SOSTENIBLE, POR LA QUE SE
APRUEBA INICIALMENTE Y SE SOMETE A
INFORMACIÓN PÚBLICA Y AUDIENCIA EL
PROYECTO DE PLAN DE MOVILIDAD
SOSTENIBLE DE EUSKADI.**

Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren azaroaren 9ko 11/2023 Legeak mugikortasun jasangarriaren plangintza-tresnak arautu ditu. Tresna horiek mugikortasun jasangarriaren eredu bat lortzera bideratutako ekintza guztien tratamendu sistematiko, koherente eta integrala ahalbidetzen dute, eta mugikortasun jasangarriaren plangintza-tresnetan jasotako zehaztapenak ingurumen-, energia-, lurralde-, hirigintza- eta azpiegitura-plangintzako tresnetan txertatuko direla ezartzen du.

La Ley 11/2023, de 9 de noviembre, de movilidad sostenible de Euskadi, ha procedido a regular los instrumentos de planificación de la movilidad sostenible, que constituyen la herramienta que posibilitan un tratamiento sistemático, coherente e integral de todas las acciones dirigidas a la consecución de un modelo de movilidad sostenible, estableciendo que las determinaciones contenidas en los instrumentos de planificación de la movilidad sostenible se incorporarán en los instrumentos de planificación ambiental, energética, territorial, urbanística y de infraestructuras.

Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Plana plangintza-tresna bat da, pertsonen mugikortasunerako eta salgaien logistikarako garraio bideen koordinazioan eta integrazio intermodalean oinarritua.

El Plan de Movilidad Sostenible de Euskadi se configura como un instrumento de planificación basado en la coordinación e integración intermodal de los medios de transporte destinados a la movilidad de las personas y la logística de las mercancías.

Aipatutako 11/2023 Legearen 14. artikuluan ezarritako eskuduntzez baliatuz, Mugikortasun Jasangarriaren Sailak Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren proiektua egin du, eta plana onartzeko prozedura hasi aurretik, oinarritzko dokumentua Eusko Legebiltzarrera bidali du, eta hark aztertu, eztabaidatu eta ekarpenak egin ditu, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 199. artikulua bidetik, lege-testu beraren 196. artikuluari eta hurrengoei dagokienez.

En uso de las atribuciones establecidas en el artículo 14 de la citada Ley 11/2023, el Departamento de Movilidad Sostenible ha procedido a elaborar el proyecto de Plan de Movilidad Sostenible de Euskadi y con carácter previo al inicio del procedimiento para su aprobación, ha remitido el documento base al Parlamento Vasco que ha procedido a su estudio, debate y aportación, por el cauce del artículo 199 del Reglamento del Parlamento Vasco, con relación a los artículos 196 y siguientes del mismo texto legal.

Lege horren 14.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, bidezkoa da Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren proiektua hasiera batean onartzea, eta jendaurrean jartzea, eta, aldi berean, interesa duten herri-administrazioei entzunaldia ematea, egoki iritzitako oharrek eta iradokizunak egin ditzaten.

Procede, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.5 de dicha ley, aprobar inicialmente el proyecto de Plan de Movilidad Sostenible de Euskadi así como someterlo a información pública y simultáneamente, dar audiencia a las administraciones públicas interesadas, para que puedan exponer cuantas observaciones y sugerencias estimen convenientes.

Azaldutako guztiagatik, eta Euskadiko Mugikortasun Jasangarriari buruzko azaroaren 9ko 11/2023 Legearen 14.5 artikuluan

Por todo lo expuesto, y en ejercicio de la competencia establecida en el citado artículo 14.5 de la Ley 11/2023, de 9 de noviembre, de





ezarritako eskumena baliatuz, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 3. artikuluekin lotuta,

movilidad sostenible de Euskadi, en relación con el artículo 3 del Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, de Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Movilidad Sostenible,

AGINTZEN DUT

ORDENO

Lehenengoa.- Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren proiektuari hasierako onespena ematea.

Primero.- Aprobar inicialmente el proyecto de Plan de Movilidad Sostenible de Euskadi.

Bigarrena.- Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren proiektua jendaurrean jartzea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta bi hilabeteko epean, erakunde publiko eta pribatuek eta, oro har, herritarrek egoki irizitako oharrek eta iradokizunak egin ditzaten.

Segundo.- Someter al trámite de información pública el proyecto de Plan de Movilidad Sostenible de Euskadi, al objeto de que durante el plazo de dos meses, contados a partir de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, las entidades públicas y privadas, además de la ciudadanía en general, puedan exponer cuantas observaciones y sugerencias estimen convenientes.

Horretarako, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren proiektua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taula elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

A tal efecto, el proyecto de Plan de Movilidad Sostenible de Euskadi se hallará disponible en el tablón electrónico de anuncios de la sede electrónica del Gobierno Vasco <https://www.euskadi.eus/tablon-electronico-anuncios>

Hirugarrena.- Entzunaldia ematea foru-aldundiei, udalerriei eta plan-proiektuaren eraginpean egon daitezkeen gainerako administrazioei, egoki deritzotena alega dezaten, agindu hau jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta bi hilabeteko epean.

Tercero.- Dar audiencia a las diputaciones forales, a los municipios y al resto de administraciones que pudieran resultar afectadas por el proyecto de plan, para que en el plazo de dos meses a partir de la notificación o, en su caso, publicación de la presente Orden, aleguen lo que estimen conveniente.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma

Susana Garcia Chueca

Mugikortasun Jasangarriaren sailburua
Consejera de Movilidad Sostenible